



**AZAROAREN 30TIK
ABENDUAREN 3RA**

AMOREBIETA – ETXANO

KINE RALLY 7. EDIZIOA!

Abian da Kine Rallyaren 7. edizioa, **azaroaren 30etik abenduaren 3ra Amorebieta-Etxanon** ospatuko da.

Parte-hartzaileek film labur bat pentsatu, grabatu eta editatu beharko dute 48 orduko epean.

Aurten, ikus-entzunezko piezak nahitaez landu beharko duen **gaia** aurrez aurre jakinaraziko dugu **Zelaietako eraikinean**, azaroaren 30a, ostegunean 19:30etan.

Izena ematen dutenek berrogeita zortzi orduko epean entregatu beharko dute film laburra, larunbateko 19:00etatik 20:00etara.

Epaimahaikoek ebaluatuko dituzte lanak eta igandean, 12:00etan, sari banaketa egingo da Zornotza Aretoan. Ekitaldi irekia da, non lehiaketako lan guztiak ikusi ahal izango diren eta **750 euro banatuko dira bi film labur onenen artean.**

Aurreko urteetan bezala, kanpoko zein herriko taldeek parte hartu ahal izango dute.

Izena emateko formulario hau bete beharko da (<http://bit.ly/kinerally7>) azaroaren 27a baino lehen, honako informazio hau emanez: taldearen izena, izen-abizenak, kide bakoitzaren adina eta bizilekua, telefono-zenbaki bat eta taldearen arduradunaren mezu elektroniko bat.

Ez galdu zinema asteburu batez gozatzeko aukera.

Zuen zain gaude!



OINARRIAK KINE RALLY 7.

1. Kine Rally 7. 2023ko **azaroaren 30tik abenduaren 3ra** ospatuko da **Amorebieta-Etxano** udalerrian eta nahi duen edonork parte hartu dezake.
2. Jaialdi hau guztiz inklusiboa da, hortaz, ez da inolako mugarik egongo adinari, nazionalitateari, sexuari, bizilekuari, eta abarri dagokionez.
3. **Adin txikiko pertsonak** parte hartu nahi badute, bi baimen izan beharko dituzte:
 - Amaren/aitaren edo tutore legalaren parte hartze baimena.
 - Amak/aitak edo tutore legalak sinatutako irudi-eskubideen baimena.
4. Lehiaketako parte-hartzea derrigorrez izango da **gutxienez 3** eta **gehienez 6** kidez osaturiko taldeetan.
5. Izena emateko, parte hartzen duen taldeak formulario hau bete beharko du (<http://bit.ly/kinerally7>) azaroaren 27a baino lehen, honako informazio hau emanez:
 - Talde parte-hartzailearen izena
 - Taldekide guztien izen-abizenak, adina, eta udalerria
 - Taldearen arduradunaren posta-elektroniko helbidea eta telefono zenbakia
6. Izena emateko epea 2023ko azaroaren 8an hasi eta azaroaren 27an bukatuko da.
7. Parte-hartzaileek denbora mugatu bat izango dute film laburra burutzeko. azaroaren 30tik abenduaren 3ra izango da epea, hau da, film laburrak 48 orduko epe batean egin beharko dira, abenduaren 1eko (osteguna) 20:00etatik abenduaren 2ko (larunbata) 20:00etararte.
8. **Azaroaren 30ean, arratsaldeko 19:30etan, Amorebieta-Etxanoko** Zelaieta eraikinean, emango zaie ezagutzera parte hartuko duten talde guztiei film laburren gaia. Gainera, Amorebieta-Etxanoko **mapa** bat emango zaie, non adieraziko zaien herriko zein 3 leku (aukeran) agertu behar diren film laburretan eta objektu bat. **Leku horiek eta objektua film laburrean aterako ez balira, taldea deskalifikatu egingo litzateke.**

9. Film laburrak edozein hizkuntzatan aurkeztu ahalko dira eta film labur bakoitzak gutxienez minutu leko eta gehienez 3minutuko iraupena izan beharko du.

10. Film labur guztiak abenduaren 2ko (larunbata) 19:00etatik 20:00etara bitartean bidali beharko dira kinerallyinfo@gmail.com posta elektronikora. Ordu horretatik kanpo entregatzen diren film laburrak ez dira onartuak izango.

11. Proiektua **H.264/H265 (HEVC)** formatuan entregatuko da, **MP4 edo MOV** edukiontzian.

12. Balorazio-irizpideak

- Euskaraz egindako film laburrak bereziki baloratuko dira.
- Bereziki baloratzen dira, halaber, berdintasunarekin, LGTBQ+ kolektiboarekin, kultura-aniztasunarekin, solidaritatearekin, eta 2030 agendarekin erlazionatutako gaiak.
- Lehiaketatik kanpo geldituko dira eduki eta jokabide desegokiak edo emakumearen aurkako indarkeria duten lanak.

13. Abenduaren 3an (igandea) 12:00etan hasiko da Kine Rally 7. Jaialdiaren sari-banaketa gala. Edozer publikorentzat irekita egongo den ekitaldia, non lehiaketan burututako film labur guztiak ikusi ahalko diren.

14. Lanak galan egongo den epaimahai batek ebaluatuko ditu, eta bi film labur hoberenak zeintzuk diren erabakiko dute eta 750 euro banatuko dira bi film labur onenen artean.

1. Saria: 500 euro. Film labur onenaren saria.

2. Saria: 250 euro. Euskarazko film laburren saria.

15. Film laburretan agertzen diren adin txikiko pertsona guztiek haien legezko ordezkariak sinatutako baimen bat aurkeztu beharko dute nahitaez.

16. Parte hartzaileek erakundeari ematen dizkiote film laburra jendaurrean komunikatzeko, erreproduzitzeko eta banatzeko eskubideak, bai eta erakundetik eta jaialdiaren antolaketatik eratorritako irudiak eta edukiak ere.

17. Taldeak film laburrean agertzen diren pertsona guztien baimena izan beharko du, baita ager daitezkeen marka, leku edo antzeko guztienak ere. Erakundeak ez du bere gain hartzen irudi-eskubideen inguruko arazoen erantzukizuna hartzen.

18. Kine Rally 7. ean parte hartzeak oinarri guztien onarpena dakar.